

UDALBATZARI

AL AYUNTAMIENTO PLENO

PP taldearen Arau Proposamena, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de naturaleza Urbana.

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2016ko abuztuaren 16an, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 16 de agosto de 2016 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de naturaleza Urbana:

Higiezinak besterentzea eta eskualdatzea zergapetzen du zerga horrek, zehazki lursailaren balio gehikuntza, eta hori gure udalerrian ondasun urria eta oso garestia da. Era berean, eragiketa horiek beste zerga, jaraunspen... batzuk dituzte; beraz, herritarrentzat oso garestiak dira zergen ikuspuntutik.

Este impuesto grava la enajenación y transmisión de bienes inmuebles, en concreto el incremento del valor del terreno, que es un bien escaso en nuestro municipio y de muy alto precio. Estas operaciones a su vez también están sometidas a otros impuestos, sucesiones, etc..., lo que las hace especialmente gravosas desde el punto de vista fiscal para la ciudadanía.

Foru Ogasunak Gipuzkoako Lurralde Historikoko katastroaren berrikuspena egin du 2016an, 2017an ondorioak izan ditzan.

Durante 2016, y para que tenga efectos en 2017, Hacienda Foral ha llevado a cabo la revisión catastral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Berrikuspén horren helburu nagusiak hauek izan dira:

Los objetivos primordiales de esta revisión han sido:

- Gipuzkoako katastroak ahalbidetzea legezko agiri bat izatea, ondasunen edozein eskualdaketa motatarako oinarritzko balioa duena.

- Que el Catastro de Gipuzkoa permita obtener un documento legal con un valor básico válido para cualquier tipo de transacción de los bienes.

- Higiezinaren merkatuaren errealitatera egokitzea balio horiek, erabilera eta guné desberdinetan balioek dituzten aldeak islatuta.

- Que los valores resultantes se ajusten a la realidad del mercado inmobiliario, reflejando las diferencias de valor entre los distintos usos y las diferentes zonas.

- Presio fiskala higiezinaren balio errealerara egokitzea, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan ekitatea hobetuz. Katastroaren berrikuspénaren ondorioz:

- Adecuar la presión fiscal al valor real de los inmuebles, mejorando la equidad de las contribuciones por el Impuesto de Bienes Inmuebles. Como consecuencia de la revisión catastral:

- Hiri izaerako ondasunen katastroaren balioek % 10,5614 egin dute gora.

- Los Valores Catastrales efectivamente gravados de los bienes de naturaleza urbana, han subido un 10,5614% .

Eskualdatutako lursailek jasan duten balio gehikuntza zergapetzen du zerga horrek, eta, gehikuntza kalkulatzeko, jabetza eskuratu zenetik igarotako denboraren -20 urte gehienez ere- araberako portzentajea eta dagokion karga tasa aplikatu behar zaizkio sortzapen unean lursailak duen katastro balioari.

Dado que este impuesto grava el incremento de valor experimentado por los terrenos transmitidos, y su cálculo del incremento se realiza aplicando al valor del terreno del valor catastral en el momento del devengo, el porcentaje que le sea aplicable en función del tiempo transcurrido desde su adquisición, hasta un máximo de 20 años y el tipo de gravamen que le corresponde.

2016an 10.000.000 € biltzea aurreikusten zen, eta, Zerga Biltegiak emandako datuen arabera, 2016ko ekainaren 30erako 10.090.432,31 € bildu ziren. Beraz, ekitaldia ixteko oraindik 6 hilabeteren faltan, aurreikusitako kopurua gainditu egin da.

La previsión de recaudación para el 2016 era de 10.000.000€, según los datos facilitados por recaudación a 30 de junio 2016 la recaudación ya era de 10.090,432,31€, por tanto aún a 6 meses de cerrar el ejercicio la previsión de recaudación, ha superado lo previsto.

Hori dela eta, honako ARAU PROPOSAMENA proposatzen dugu HIRI IZAERAKO LURSAILEN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI buruz:

Eranskina aldatzea

Honako jartzen duen tokian:

Por todo ello, se propone la siguiente **PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA:**

Modificación del Anexo

Donde dice:

Zerga mota hau lurak eskuz aldatzen direnean ordaindu behar da, baldin eta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kontuetarako, Balioespen Txosten berrien araberako balioa erabili behar bada. Zerga aldien arabera:	Tipo de gravamen en función de los períodos en transmisiones de terrenos en los que se aplique el valor a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles resultante de las nuevas Ponencias de Valoración:	
1etik 5 urtera arteko aldia / De 1 a 5 años		11,50%
10 urtera arteko aldia / Hasta 10 años		11,10%
15 urtera arteko aldia / Hasta 15 años		10,65%
20 urtera arteko aldia / Hasta 20 años		10,20%

Hau jartzea proposatzen dugu:

Se propone:

Zerga mota hau lurak eskuz aldatzen direnean ordaindu behar da, baldin eta, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kontuetarako, Balioespen Txosten berrien araberako balioa erabili behar bada. Zerga aldien arabera:	Tipo de gravamen en función de los períodos en transmisiones de terrenos en los que se aplique el valor a efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles resultante de las nuevas Ponencias de Valoración:	
1etik 5 urtera arteko aldia / De 1 a 5 años		11,25%
10 urtera arteko aldia / Hasta 10 años		11,00%
15 urtera arteko aldia / Hasta 15 años		10,50%
20 urtera arteko aldia / Hasta 20 años		10,00%

Ogasun Batzardeak, 2016ko irailaren 15eko bilkuran, EAJ taldeak aurkeztutako zuzenketa bat onartu du.

Horren ondorioz, proposaturiko Ordenantzaren Eranskina aldatu da, modu honetan:

“Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzeko Arau Proposamena aurkeztu du PP taldeak. Katastroaren berrikuspenaren ondorioz, 2017rako balio katastralak igo egingo dira eta, horiek Gainbalioa kalkulatzeko oinarri izanik, zerga tasak murriztu ditu katastroaren balioen gorakadaren eragina txikitzeko.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan bezalatsu, 2017an 2016ari dagokion diru bilketa % 1,5 igotzeko proposamena baloratzeko asmoz, proposatzen dugu aldi hauetako tasak honakoak izatea: % 11,00, % 10,50, % 10,00 eta % 9,70, hurrenez hurren.”

En sesión de 15 de septiembre de 2016, la Comisión de Hacienda ha aprobado una enmienda, presentada por el Grupo EAJ/PNV, como consecuencia de la cual se modifica el Anexo propuesto, según el siguiente detalle:

“Ante la Proposición normativa del grupo PP, de modificar la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de naturaleza Urbana, reduciendo los tipos impositivos para minimizar el impacto del incremento de valores catastrales, base del cálculo de la Plusvalía, con la revisión catastral que entra en vigor para 2017

Con el interés de poder valorar una propuesta que igual que en el Impuesto de Bienes Inmuebles incremente la recaudación de 2016 en un 1,5% para el 2017, proponemos que los tipos correspondientes a estos periodos sean 11,00%, 10,50%, 10,00% y 9,70% respectivamente.”

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

ACUERDOS:

LEHENA: Onartzea Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

PRIMERO: Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana, descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA: 2017ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailaren 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2017, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2016ko irailaren 16a

San Sebastián, 16 de septiembre de 2016

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA